

EHUN MILATIK GORA LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEAK GALDEGITEKO MANIFESTAZIOAN

Bilbok gainez egin zuen euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko

■ Une batean ere atertu ez izanak ez zuen kikildu Bilboko kaleak bete zituen 100.000 lagunetik gorako jendetza

■ Arzalluz, Garaikoetxea, Otegi, Madrazo, Irazusta, Iriarte eta Burguete presoek eskubideen aldeko pankartarekin joan ziren

■ 2.600 metroko ibilbidea ezin txikiago geratu zen, eta inguruko kaleetan manifestazio paraleloak sortu ziren berez

Inaki Uriarte / Bilbo

BILBOKO kaleek egun historikoa ezagutu zuten atzo. 1978ko Aberri Eguz geroztik batera manifestatu ez ziren indar politikoak elkarrekin irten ziren kalera, euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko. Bildutako indarrak eztanda egin zuen Bilboko kaleetan, ibilbidea eta antolakuntzaren ahalegin ikaragarria txiki uzteraino.

Autonomia kale osoa eurtakoen azpian mugitzen ziren milaka lagunek estalia ageri zen, Sabino Aranako zubia eta kaleak herrietatik sartu nahian zebiltzan dozenaka autobusen eta ataskoaren erdian autobusetik jaitzita milaka oinezkoen urrats urduriak ikus zitezkeen. Ordena zerbitzua 5etan puntuan abiatu zen manifestazioaren buruari bide egiteko jendetzaren artean.

Alderdi bakoitzak ordezkari bi jarri zituen *Euskal presoek eskubideen alde* zioen pankarta zuriari eusteko. Ezkerretik hasita Zutikeko Josetxo Riviere eta Joxe Iriarte *Bikila*, Abertzaleen Batasunako Jakes Abeberri eta Richard Irazusta, Herri Batasunako Jon Idigoras eta Arnaldo Otegi, Euzko Alderdi Jeltzaleko Jose Antonio Rubalkaba eta Xabier Arzalluz, Eusko Alkartasunako Carlos Garaikoetxea eta Inaxio Oliveri, IU-Ezker Batuko Javier Madrazo eta Antton Karrera eta Batzarreko Tere Saez eta Manuel Burguetek osatu zuten lehen lerroa.

Haien atzetik deia zabaldu zuten alderdietako buruzagi eta hautetsiak talde trinkoan batu ziren. Luis Maria Retolaza eta Sebe Ormazabal eta ANV-EAEko abertzale historikoen ere ez zuten egun historikoa galdu nahi izan, eta buruan egin zuten 2.600 metroko ibilbidea.

Metro batzuk atzerago sin-



XOUSE SIMAL

Alderdietako ordezkariak udaletxeko eskilaretan, pankarta eskuetan dutela, bertaraten ari zen jende oldeari begira.

dikatu, gizarte talde, elkarte eta herri mugimenduetako hainbat pertsona ezagun bildu ziren oste berean. Haiekin batera, Lolo Rico eta Montserrat Garcera filosofía katedraduna izan ziren, Madrilgo Foroaren ordezkari. Manifestazioak aurrera egin ahala «Euskal presoak Euskal Herrira» eta «Presoak kalera, amnistia osoa» oihuak entzun ziren etengabe, espaloietan zain zeuden milaka pertsonen ahotik.

Ekitaldia amaitzean, azkenak abiatu barik

Jendetzak antolatzaileek aurreikusitako ibilbidea gainditu zuten nabarmen. Manifestazioaren burua bostetan puntuan abiatu zen Sabino Arana kaleko zubipetik, eta 57 minutu eman zituen udaletxeko iskailetarara heltzeko. Sindikatu eta

gizarte mugimenduak buruko multzoan abiatu baziren ere, Rafa Diez, Jonan Fernandez, Arantza Urkaregi eta besteen pankarta politikarienta baino 40 minutu beranduago heldu zen udaletxera,

ekitaldi politikoa amaitu eta ordu laurdenera.

Presoen senideek, zapi zuria lepoan, Zabalburu plazan itxaron zuten preso eta erbesteratuen argazkiekin jende oldean sartzeko auke-

raren zain. Udaletxean Guri-diren *Eusko irudiak* eta Maite Idirinen *Ongi etorri* kantuek agurtu zituzten manifestariak. Milaka ahotsek *Hator hator* ozen batekin amaitu zuten ekitaldia.

Manifestaziorik handiena

■ ATZOKOA euskal presoek eskubideen alde inoiz egin den manifestaziorik handiena izan zen. Zifra zehatzak emateko zailtasunak egon arren ez antolatzaileek ez poliziek ez dute kopururik eman, badira manifestazioan ehun mila lagunetik gora egon zirela ondorioztatzen hainbat datu. Ho-

nako hauek dira haietako batzuk: Aita Donostia eta udaletxearen artean 2.600 metroko ibilbidea dago, 12 eta 20 metro bitarteko zabalera duten kaleetan. Batez beste 41.600 metro koa dro hartzen ditu bideak, espaloietan eta plazetako zabalgu-neak kontuan hartu barik.

Ibilbide guztia jendez beteta zegoen, hutsunerik gabe. Beste milaka lagun espaloietan eta Zabalburu zein Plaza Zirkularreko zabalguneeetan zeuden.

Ekitaldi politikoa amaitu zenean, burua heldu eta hogei eta bost minutura, manifestazioaren atzean zeuden pertsonak Aita Donos-

tia Plazan zeuden artean. Une askotan, Autonomia kalean batez ere, manifestazioa gelditu egon zenez, milaka lagunek alboko kaleak hartu zituzten udaletxe-rantz arinago hurbiltzeko.

Politikariak zeuden pankartaren aurretik, pankartarik gabeko beste manifestazio bat zihoan.